



LINGUA NABAIJORUM

EUSKARAREN
HISTORIA
TXOROA

TARTEAN Teatroa
EZ DOK HIRU bikoteatroa
Mikel Martinez - Pabxo Telleria
Egilea: Pabxo Telleria - Zuzendaria: Jokin Oregi





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

LINGUA
NA BA JO RUM

EUSKARAREN HISTORIA

PATXO TELLERIA

<http://tarteian.com/>

HEZURDANTZA

Off

Nondik dator euskara? Noiz sortu zen? Inork ez daki. Soilik dakigu noizbait, duela hamar edo ehun mila urte, gizaki batzuk Kantauri alde honetara heldu eta betirako geratu zirela.

Gizaki horiek beti zeuden borrokan, beti liskarrean. Zergatik?

Bata Cro-Magnon zelako...eta bestea Neanderthal.

Makil dantza moduko bat entzuten hasten da, eta Patxo eta Mikel Hezur dantza dantzatzen dute. Hasieran dantza fina da, baina aurrera joan ahala, biolentzia gero eta haundiagoa da. Azkenean onetik guztiz irtenda bukatzen dute, arnasestuka.

Bukatzean, Patxok eta Mikelek, irriz, atrezoa kentzen duten bitartean.

Patxo

Tira... hau broma bat izan da. Topikoarekin jolastu dugu: euskalduna liskarzalea omen da, borrokazalea, eta abar, eta abar...

Mikel

Guk topiko hau apurtu nahi dugu. Egia da hemen gerrak eta konfliktoak egon direla beti. Eta non ez?

Patxo

Hain zuzen ere, ikuskizun honetan erakutsiko dizuegu konflikto horiek moldatu eta garatu dutela gure hizkuntza heldutasunera heldu arte.



Mikel

Eta euskararekin batera geu ere. Zeren eta gaur egungo euskaldunak erabat adiskidetsuak gara. Ezta, Patxo?

Patxo

(Oraindik ere irriz) Bai. Eta hurrengoan, kontuz dantza egiten dugunean. Hanka zapaldu didazu.

Mikel

Oh!! Benetan? Gaur ere? Berriro???

Patxo

Ba bai!!

Mikel

Eta hala ere ez zara haserretu, adiskidetsua zarelako.

Patxo

(...) Bai. Bide batez, ezetz jakin zein izan zen euskaraz sortu zen lehen hitza?

Mikel

Maitasuna? (...) Pinpilinpauxa? (...) Egunsentia?

Patxo Mikelen oina zapaltzen du.

Mikel

Ostia!!!

Patxo

Ba bai. Hori izan zen lehenengo hitza.

EDAN ETA EPA

Patxo badoa jaztera.

Patxo

Segidan, lehenengo hitz hau nola eta zergatik sortu zen erakutsiko dizuegu.

Edan eta Epaz jazten dira.

Patxo

Hauxe duzue historiako lehenengo bikote euskalduna: Edan eta Epa.

Mikel

Epa!

Taparraboak kendu eta hosto bana erakusten dute, hankatartean.

Patxo

Sexu grina berehala piztu zen bion artean.

Mikel

Eta sexu gogo horri esker sortu zen lehenengo hitza.

Mikelek bere hostoa erantzi eta airera botatzen du.

Mikel

Aiba la hostoa.

Patxo

Aiba la hostoa!!

Patxok Mikelen "biluztasuna" estaltzen du bere pelukarekin.

Patxo

Hitz horrek bariante asko ezagutu ditu, mendebaldetik...

Mikel

Hostixe!

Patxo

...ekialderaino...

Mikel

Hostüe!

Patxo

...baina denborarekin erdialdeko bariantea nagusitu da.

Mikel

Ostia!

Patxo

Hasieran beste hitzik ez zegoenez, euskaldunak hitz hau denetarako erabiltzen zuen. Lehenengo tximistaren beldurra espresatzeko:

Mikel

Ostia!!

Patxo

Lehenengo ilunabarraren edertasuna:

Mikel

Ostia!

Patxo

Lehenengo haserreak:

Mikel

Ostia!!

Patxo

Lehenengo baketzeak:

Mikel

Ostia...

Patxo

Edo lehenengo orgasmoa:

Mikel

Hostia hostia hostia hostia!!!!

Patxo

Ostia hitzetik datoz euskarazko hitz mordoak. Esate baterako, ejerzitoa, ostiak emateko erakundea:

Mikel

Gudalostia.

Patxo

Astearen erdiko eguna, hau da, ostiak emateko eguna:

Mikel

Ostiegunak.

Patxo

Eta ostegunean nahikoa jaso ez baduzu...

Mikel

Ostirala.

Patxo

Bidean estropozu egin eta ostia bat jaso.

Mikel

Ostiopatu.

Patxo

Izotzean laban egin eta ostia bat jasotzea.

Mikel

Izostia.

Patxo

Ostia argi eta garbi ematen dituena.

Mikel

Ostiensible.

Patxo

Ostia emateko bizio daukana.

Mikel

Ostiopata.

Patxo

Eta ostia bat jasotzeko beldurra.

Mikel

Angostia.

Patxo

Milesker, Eva, bukatu dugu zurekin. Emakume bikaina zara.

Mikel

¿...?

Patxo

La ostia zarela.

Mikel

Ah!

Patxo

Euskaldunak hitz hau kulturaren mailarik gorenera igo dugu mundura. Zein da bada, gaur egun Europako Kultur Hiriburua?

Mikel

Donostia.

Patxo

Ostia hitza la ostia da. Zer egingo genuke euskaldunak hotz hori gabe?

Badoaz. Mikelek zerbaitekin egiten du topo.

Mikel (Off)

Ostia!!

EKAIN ETA ABEL

Patxo

Horixe bai, ostia erdirik ez.

Mikel

Nork jarri du kaxa hau hemen???

Patxo

Ui... Ni izan barkatu.

Mikel

Lasai, ez da ezer.

Patxo

Ez zaude haserre nirekin?

Mikel

Ez!!

Patxo

Seguru?

Mikel

(Oso haserre) Ezetz, ostia!!

Patxo

(Publikoari) Adiskidetsuak garelako. Baina ez da beti horrela izan. Hasierak gogorrak izan ziren.

Mikel

Bai, ze Edan eta Eparen ostean, haien semeak heldu ziren, Bekain eta Ubel!!

Patxo

Bi anaia hauek aurrerapauso bat eman zuten euskararen garapenean. Onomatopeiak asmatu zituzten.

Mikel

Eta onomatopeiekin batera, konflikto linguistikoa.

Mikelek hezur batekin Patxoren buruan joko du. Kolpeak soinua (grabatua) aterako du. Patxok eta Mikelek zarata entzun eta hitzez azaltzen saiatuko dira. Bata gaztelaniazko onomatopeiaz eta bestea erderakoaz.

Patxo.

Katakrof!

Mikel

Pataplum!!

Patxo

Pataplum? Katakrof!

Haur musika bat entzuten da. Hemendik aurrera, Patxok eta Mikelek musikaren erritmora kantatu eta dantzatuko dute.

Patxo

Pataplum.

Mikel

Katakrof!

Biak (estribilloa)

Pataplum- Katakrof.

Txakur bat entzuten da.

Patxo

Guau!

Mikel

Zaunk!

Biak

Guau-guau, zaunk-zaunk. Pataplum Katakrof.

Txori bat entzuten da.

Mikel

Txio-txio.

Patxo

Pio-pio.

Biak

Pio pio-Txio txio. Guau-guau, zaunk-zaunk. Pataplum Katakrof.

Kilkerra entzuten da.

Patxo

Kri-kri.

Mikel

Kir-kir!

Biak

Kri-kri, kir-kir. Pio pio-Txio txio. Guau-guau, zaunk-zaunk. Pataplum Katakrof.

Behia entzuten da.

Mikel

Marru-marru

Patxo

Muu-muuu.

Biak (Estribilloa, haserre)

Muuu-muuu, marru-marru. Kri-kri, kir-kir. Pio-pio, txio-txio.

Guau-guau, zaunk-zaunk. Pataplum Katakrof.

Katua entzuten da.

Patxo

Miau-miau.

Mikel

Mau-mau...

Biak

Miau-miau, mau-mau, muuu-muuu, marru-marru. Kri-kri, kir-kir.

Pio-pio, txio-txio. Guau-guau, zaunk-zaunk. Pataplum Katakrof.

Kukua entzuten da.

Patxo

Kuku.

Mikel

Kuku!

Patxo

Kuku?? Kuku!

Mikel

Kuku?? Kuku!

Hitz berbera esan dutela ohartzen dira.

Patxo

Kuku!

Mikel

Kuku!!

Barre egiten dute.

Patxo

Ja, ja, ja!!

Mikel

Kar-kar-kar!!!

Patxo

Kar-kar-kar?? Ja, ja, ja!!

Mikel

Ja, ja, ja??? Kar-kar-kar!!

Elkarri jotzen diote.

Biak

Pataplum ta katakrof.

SANTIMAMIÑE

Patxo

Konflikto linguistikoa... Baina ez eraman euskaldunen inpresio negatibo bat, mesedez. Kobazuloetan bizi ziren gizaseme horiek ez zuten egun osoa borrokan ematen. Ez. Nahikoa lan zeukaten eguneroko janaria eskuratzearekin.

*Mikel honezkero "primitibo-bohemioz" jantzita dago. Bere bisontearekin.
Patxok ez du ikusi.*

Mikel

Eta hala ere, kultura eta arterako ere denbora bazuten.

Patxo

Beno, hor ere eztabaidak daude. Askoren ustez, euskalduna eta kultura kontzeptu kontrajarriak dira.

Mikel

Hara!! Hori bai deuseztatu beharreko topiko bat!! Herri hau ezin da ulertu euren artistak gabe. Oteizaren Hutsuneak, Txilidaren Orraziak, Mikel Laboaren Lekeitioak...

Patxo

(Barrez) Bai! Eta Mikel Martinezen sudur pikasianoa!!

Mikel ofenditurik.

Mikel

Zertara etorri da hori?

Patxo

Ez dakit. Klasiko bat da, ez? Zure sudurrarekin sartzea... Zer ba? Haserre zaude?

Mikel

Ba bai. Baina aurre historiako artista bat naizenez, haserrea sublimatzen ari naiz.

Patxo

Ze ondo! (Publikoari) Dena den, euskaldunak eta kultura... Ikusi bestela, zer gertatu zen Santimamiñen. Hadi egon orduko euskarari. Oraindik onomatopeiaz baliatzen baziren ere, haien espresibitate maila izugarria zen.

Patxo sartzen da, arku eta geziaz Bisontea ikusi du. Segituan gezia prestatu eta tiro egitera doa.

Patxo

Tssst!!

Mikel

O?

Patxo

Ut!!

Mikel

Ut?

Patxo

(Behia seinalatuz) Marru-marru!! (Arkua seinalatuz) Nik zizta-zizta! Danba-danba!!

Mikel

Zizta-zizta?

Patxo

Txist!!! Ez burrundaia, ze marru-marru arrapaladan trakatran-trakatran!!

Mikel

Marru-marru ez arrapaladan trakatran-trakatran!! Marru-marru marra-marrazki!!!

Patxo deskonzertaturik, hurbiltzen da, usainduz.

Patxo

Marru-marru marra-marrazki?

Mikel

(Baietz) Marra marrazki!

Patxo

O!! O!! Marru-marru ez txitxi?

Mikel

(Barrez, ezezkoa) Ez txitxi.

Patxo

Ez ñam-ñam?

Mikel

Ez ñam-ñam. Marru-marru ikusi-makusi.

Patxo

Makusi?? Zu marra-marrazki?

Mikel

Ni marra-marrazki.

Patxo

("Zergatik?", keinuaz)

Mikel

Marra-marrazki ikusi-makusi, ta ohhh, dar-dar!

Patxo

Marra-marrazki ikusi makusi, ta ohhh, dar-dar? Ni ez dar-dar. Ni ñam-ñam.

Mikelek zahato bat eskaintzen dio.



Mikel

Xurrut!

Patxok edan egiten du.

Mikel

Makusi, makusi.

Patxo pinturari begira geratzen da.

Mikel

Ta? Dar-dar?

Patxo

(Ezezkoa).

Mikelek hautsak ematen dizkio.

Mikel

Snif hauts! Hauts ja, ja!

Patxo

Kar-kar.

Mikel

Hauts jua-jua!!

Patxok snifatu egiten du.

Mikel

Makusi. Ta? Dar-dar?

Patxo

(Ezezkoa)

Mikel

Taupa-taupa?

Patxo

(Ezezkoa)

Mikel

Kilikili? Zirri-zirri?

Patxo

(Ezezkoa) Ni ñam-ñam.

Patxok hanka bat ateratzen du bere zorrotik eta jaten hasi. Mikel begira, goseak hilda.

Patxo

Ea... Zu marru-marru marra-marrazki ñam-ñam?

Mikel

(Barrez) Ez! Nik ez ñan-ñam marru-marru marra-marrazki.

Patxo

Zuk zer ñam-ñam?

Mikel

Nik ñam-ñam zuk marru-marru zizta-zizta danba-danba.

Patxo

Ni marru-marru zizta-zizta jata-jata danba-danba, ta zu ñam-ñam???

Mikel

Aha...

Patxo

Ozea... Ni arrapaladan, trakatan-trakatan, txipli-txaplaka, zirin -aran, taupa-taupa, marru-marru, danba-danba eta ñam-ñam, ta zu apatx, tralarin-tralaran, uju-ujuka, jijiji-jajaja, marra-marrazki!!!???

Mikel deskonzertaturik, argudiorik gabe.

Mikel

Marra-marrazakilari.

Patxo

Marra-marrazakilari?? Zu glu-glu, gzanga-dzanga, dringili-drangala!!

Mikel

(Deskonzertaturik) Oh...

Patxo

(Mesprezuz) Marra marrazkilari...!!

Badoa. Mikel bakarrik geratzen da, pentsakor. Mikelek marrazkia desegin, txapel-a jaurti, arku eta gezia hartu eta Patxoren atzetik doa.

Mikel

E!! Marra marrazki kaka! Ni ez marrazkilari! Ni ziztaziztalari!! Ni ñam-ñam!!

Badoa Patxoren atzetik.

Patxo

Eta horixe da ordutik hona gure herrian kulturak okupatu duen estatusa.

ERROMATARRAK DATOZI!

Patxo

Pixkanaka-pixkanaka hizkuntzak aurrera egin zuen. Erromatarren garaian, euskarak ia-ia denetarik zeukan: izenak, aditzak, adjetiboak... Arazoa esaldiaren antolaketa zen. Bakoitzak nahi zuen moduan ordenatzen zituen hitzak, eta jakina, gaizkiulertuak sortzen ziren. Horregatik egin genuen borroka erromatarren kontra. III. mendea Kristo aurretik. Baskoien lurraldearen mugan, gerlari bat goardia egiten.

Patxo eta Mikel jantzita daude: Mikelek Asterixen itxura du, Patxok Obelixena.

Mikel

Ez eskubiderik dago. Ez eskubiderik dago. Tokatzen beti niri zait egitea guardia!

Patxo

Zertan zabilta?

Mikel

Baskoiarena egiten.

Patxo

Esan nizun gaur nik egingo nuela baskoiarena eta zuk erromatarra.

Mikel

Bai, esan zenidan, baina zuri hobeto dagokizu erromatarraren papera.

Patxo

Ez dut erromatarrarena egin nahi. Zuri beti tokatzen zaizkizu pertsonaiarik onenak. Baskoiarrena egin nahi dut. Ondo prestatu dut!!

Mikel

Bai, ikusten da (Tripa seinalatuz), baina oraindik pixka bat falta zaizu. Dena den, daramazun martxarekin, aste pare batean "borobila" aterako zaizu papera. Ea, egin erromatarrarena.

Patxo

Ez!

Mikel

Ea, zotz egingo dugu. Irabazten badut nik baskoia, galtzen badut, zuk erromatarra.

Biak

Harri orri ar!!

Patxo

Nik artazia ta zuk papera! Irabazi dut!!

Mikel

Erromatarrarena egin behar duzu.

Patxo

(...)! Baina irabazi dut!!

Patxo azkeneko unean moskeatzen da.

Patxo

Ez dago eskubiderik.

Mikel

Ez eskubiderik dago! Ez eskubiderik dago! Tokatzen beti niri zait egitea guardia! Tokatzen beti niri zait! Egin atzo nuen, egin herenegun nuen, egin joan den astean nuen. Zergatik? Tontoena artean baskoien akaso naiz? Eh? Tontoena akaso naiz? Gainera, zergatik goardia dugu behar egin? Hemen ez gertatzen da ezer inoiz. Baskoiak bizi bakean gara. Baskoiak ez etsairik daukagu! Puteatzeagatik ni duzue egiten. Puteatzeagatik ni! Ez eskubiderik dago!! Ez eskubiderik dago!!

Joatera doanean, erromaterren tronpetak entzuten dira urrunean.



Mikel

E?? Zer hori zarata da? Horiek trompetak...

Berrito entzuten dira tronpetak.

Mikel

Erromatarrak!! Ai maitea amatxo...! Ai maitea amatxo!! Datoz erromatarrak!!

Patxo agertzen da, erromatarrez jantzita, eskenatokiaren eskuinaldean.

Patxo

Salve! Naiz Marco Annio Valens, interpretea erromatarren. Bakean zuekin nahi egon dugu.

Mikelek lantzaren punta erromatarrarengana zuzentzen du, erasokor.

Mikel

Nahi... nahi zer duzu?

Patxo

Gatoz egitera gerra ez.

Mikel

Zatozte egitera gerra, ez?? (Kideei) Egitera datoz gerra!

Patxo

Ez! Egitera bakea!

Mikel

Ez egitera bakea? Orduan egitera gerra. (Kideei) Konfirmatuta. Egitera datoz gerra!!

Patxo

(Zapi txuria ateraz) Gaitezen lasai!! Gaitezen lasai!! Izateko gatoz asmoz adiskideak, ez etsaiak.

Mikel

Etsaiak asmoz izateko zatozte, ez adiskideak?

Patxo

(Deskonzertaturik) E...

Mikel

(Kideei) Etsaiak asmoz izateko datoz!!

Patxo

(Zuzenduz) Ez!! Adiskideak!!

Mikel

(Kideei) Ez adiskideak!!

Patxo

Ala Jupiter!! Ez ulertzen duzu. Dugu lagunak izan nahi, gerra gabe egin.

Mikel

(Kideei) Gerra egin nahi dute lagunak izan gabe!!

Patxo

Ez!!!

Mikel

(Kideei) Lagunak izan gabe ezin dutela gerra egin!!

Patxo

Ezetz!!

Mikel

(Kideei) Gerra nahi gabe ez dagoela lagun izaterik!!

Patxo

Eztez, ala Jupiter!!

Mikel

(Kideei) Lagunak direla eta gerra egin nahi dutela!!

Patxo

(Desesperatuta) A!!!!

Mikel

(Haserre) Orduan zer nahi koño duzu esan??

Patxo

Bada... bada... (Beste alhora, bere kideak ikusteke dauden tokirantz) Miles populum romanorum, erasora!!!! Eta a tomar por culum!!

Patxo badoa.

Mikel

Egitera datoz gerra! Zer nik esaten ba nuen?

Mikel badoa.

ILUNA

ROMANIZATUAK

Patxo (off)

Mikel, lehen ziria sartu didazu, ez?

Mikel (off)

Nik? Ez!!

Patxo (off)

Dena den, trapu zikinak hobeto etxean garbitzen baditugu, eta ez publikoaren aurrean, ados?

Mikel (off)

Ondo da, ondo da.

Patxo (off)

Argi utzi nizun, nik egin nahi nuela baskoiarena!

Mikel (off)

Bale... Hurrengoan utziko dizut. Dena den, nik askoz hobeto egiten dut. Uf, alde ederra!

Patxok gaizki hartzen du azkeneko ziria baina isildu egingo da.

Mikel

Kontuak kontu, erromatarrak sartu ziren gure lurraldean. Erromanizazioa arlo batzuetan kaltegarria izan zen, baina gauza onak ere ekarri zituen.

patxo

Bolada batez euskaldunak "eszepzio egoera" batean bizi izan ziren: kuriositate intelektuala zegoen, manera finak, jarrera sexual guztiekiko errespetua...

Mikel

Eta gure hizkuntza, latinismoz josita, aberastu egin zen.

Euskal-erromatarrez jantziko dira, erromatarren tunika batekin.

Patxo

(Hasperen) Hona hemen bi erromatar-euskaldun, geometriaz hitz egiten: Zistitix...

Mikel

...eta Gastritix.

Mikel eta Patxoren erdian figura geometriko bat, zilindro bat.



Patxo

Esan, Cistitis, ze opinio deritzozu figura geometrikus honi?

Mikel

Ene Gastritis adiskidea, nire opinioz hau ez da esfera bat. Ez dakit, trapezio?

Patxo

Maprezio ondo, bai. Halabaina esfera baten karakteristikak ditu, ezen arriban eta abajon zirkuloak bait daude.

Mikel

Efektibamentean. Sin embargoki linea rectoak ere egon badaude, eta cosa conocida da esferak ez duela linea rectarik!

Patxo

Por consigüentez, kubo bat da?

Mikel

Ez. Ezen kuboak ez bait dauka zirkulorik.

Patxo

Perplejitatez beterik nago. Radioa konprobatzeko beta izan duzu?

Mikel

Beta, Alfa eta Gamma.

Patxo

Ze Beta du?

Mikel

Beta la porra.

Patxo

Eta Alfa?

Mikel

Bider bi, hau da, alfalfa.

Patxo

Ezen ez trigo.

Mikel

Ez, ze trigo no metria.

Patxo

Cono, cono! Paralelepipedo utzi nauzu.

Mikel

Bai, alajaina, ezen baba jausten zaizu, halako belozitatean non pisuari direktoki proporzionala den eta rozamientoari inbersoki proporzionala.

Patxo

Bai. Baduzu secante bat?

Mikel

Ez dut ez secate ez cosecante. Eta beharko, zeren konstipatuta bait nago.

Patxo

Ez naiz sorprenditzen. Zelako napius!! (Barrez) Kurba parabolikoa!

Mikelek haserre begiratzen dio.

Patxo

Para kurbas, Venusenak. Esan, Cistitis, ze opinio deritsozu Venusen figura geometrikoari?

Mikel

Senoak, ene Gastritis adiskidea. Senoak eta kosenoak!

Patxo

Jarraituko dugu temarekin?

Mikel

Ze tema?

Patxo

Apotemaren tema.

Mikel

Ez, ni piramide hemendik.

Patxo

Kalera? Kontuz, kalea jacta est!

Mikel

Ez. 3,1416-3,1416 egitera.

Patxo

3,1416-3,1416?

Mikel

Pipi. Zer erremedio! Gorputzaren ehuneko 70a ura da!

Mikel txiza egiten hasten da bazter batean.

Patxo

Eta beste 30a?

Mikel

Materia solidoa, jakina.

Patxo

Materia solidoa eta ura gara Cistitis? Besterik ez?

Mikel

Hala da, Gastritis.

Patxok kutxilo bat sartzen dio.

Patxo

Eta odola zer, Cistitis? Odola zer, listillus?

Mikel

Baina ze Brutuz zaren, Gastritis. Ze brutus. ("Dramatismoz") Oh... et tu quoque, brute, fili mi... Oh, tenpora o mores!! Oh, Rosa rosae...



ERDI AROA

Patxo

Baina Erromatar Inperioa jausi egin zen noizbait. Asko kostata! Eta erdi aroan sartzean euskarak beste aurrerapauso bat eman zuen.

Mikel

Jende askok zalantzan jartzen du hori. Haien ustez ezin daiteke konparatu erromatarren garaiko euskara dotore hori geroko euskara zatarrarekin.

Patxo

Ba guk konparatuko dugu! Eta publikoak atera dezala bere ondorioa. Entzun dezagun Cistitisen euskara zilindroaren aurrean.

Mikel

Zilindro hau uretan sumergituz gero esperimentatuko du goranzko inpulso bat ezen ekibalentea baita desplazaturiko masaren bolumenarekiko.

Patxo

Orain jo dezagun ehun urte aurrera eta entzun dezagun Zistitixen ondorengo baten euskara zilindro beraren aurrean.

Patxo harri-jasotzailez jantzi da. Mikel, erdi aroko arropekin agertuko da, baina oraindik ere pelukarekin Patxok zilindroari buelta eman eta 150 kiloko harri zilindrikoa dela ikusten dugu, euskarriak eta guzti.

Patxok harria altxatzen hasten da.

Mikel

(Oihuka) Emaiok ostia!! Altxazak harri alua, ostia kabendio!! Altxazak berriro, ostia, potro erdirik ez duk ala, kabendio!! Beste behin altxazak, kabenlaputadeoros, ala zer haiz hi, marikoia ala?? Eutsi. Ostia, altxazak berriro...

Patxo

Hara, Erromatarren euskara hori kultoa eta dotorea izango zen, bai. Baina erdi aroan sortu zen guk hainbeste maite dugun euskara: Euskara Jatorra.

Mikel

Eta ditxosozko zilindroari, ganorazko erabilpen bat aurkitu genion.

ORREAGAKO GATAZKA

Mikel

Gauzak horrela, Erdi Aroko euskarak sekula ezagutu duen mailarik altuena lortu zuen. Garai hartako trobadore euskaldunak munduko onenak ziren.

Patxo

Hain ziren onak, e, Mikel, ze esate baterako, poemak errezitatzen zituten, hitz guztiak letra berdinarekin hasita. Eta hori erakusteko, segidan, Mikelek, trobadore baskoiak, Orreagako gatazkaren erromantzea errezitatuko du, hitz guztiak a-rekin hasita.

Mikelek trobadore jantzia eskaintzen dio Patxori.

Mikel

Ba ez, Patxok errezitatuko du. Ez duzu ba lehen esan baskoiarena egin nahi zenuela, niri tokatzen zaizkidala beti paperik onenak? Ba egin, bat sor nizun.

Patxo

Baina osoa?

Mikel

Bai. Mila aldiz entzun didazu niri. Gogoratzen duzu, ezta? Orreagako gatazka: VIII mendean gertatu zen. Karlomagno, enperadore Frankoa, bere ejerzitoarekin Pirineoak zeharkatzen ari zenean, baskoiak, musulmanen laguntzarekin, mendi puntatik, erretaguardiari eraso zioten harrika. Karlomagno boteretsuaren porrot bakarra izan omen zen. Eta Patxok erromantze osoa errezitatuko du hitz guztiak A-rekin hasita.

Erdi aroko musika entzuten da.

Patxo

Aspaldian, Aezkoako alderdi aldapatsuan, ardiak aharrausika. Alabaina, arbolen artean, Almoravideen aurka altxaturiko armada agertzen ari, aguro, adin askoko armagizon ausart, animoso, armaduraz apaindurikoak.

Mikel

A-rekin ederki ari zara. Baina zailagoa oraindik. Zuk ahal duzu eta. Orain B-rekin!

Patxo

Bitartean, bailarako baserritarrak bakean, batere barrundatu barik basoko bidexketan baturiko burdineria burrunbatsua. Baserritarra baketsua beti, baina borrokalaria bere, bilaukeriaz, begiramendu barik borrokatzen baldin badiote.

Mikel D!

Patxo

Ditxa di-da desagertu da denbora dexenterako, doilorrek dardo distiratsuak deskargatu dituztelako dohakabe desarmatuenera. Dolua! Dolorea! Dolumina! Deskiterako deialdi desesperatua!. “Daukaguna defenda dezagun”!

Mikel

E!

Patxo

Ez eukien edonolako erronka. Euren etsaia Europako Enperadorea. Ezkerrean Erroldan, ezpata ezagunaren eramalea. Euskaldunak, erromes eskaleak, erdipurdiko erremientekin. Estrategia erabaki eben: erretaguardiaren esperoan ezkutatu enboskada egiteko.

Mikel

F!

Patxo

Faenako funtzio faktiko fundamentalak funtsaturik, ferrak funditu fusteko fusilak fabrikatzeko, fortunatuenak fundamentuz fornikatu, fortunagabeek familiakoak formalismoz ferekatu, fite frankoengana.

Mikel

G!

Patxo

Gailurrera gindoazen, gaizkileak garaitu guran. Gudaloste galoa genekusan: gudagizon gazte galantak, gihartsuak... “Gu gezirik gabe, gerrara goaz?”, genioen, “Galdurik gaude!! Gogoz gainbehera goazela, gudaburuaren garrasia: “Geldi!!” Gainbegiratu genuen: galoen gudalostaeren gibelari gaizki gordea generitzon.

Mikel

H!

Patxo

“Haika, hartu haitzak herkideok, harrikatu!” Harriak hegan, hasi hituen, hemen, hor, han... Horrenbestez hasi huen hiritar harro haien hondamendia. Hemengo honek hanka hautsia; horko horrek histeriak hartuta, hango hark hezurrrak hondaturik. Hekatonbea!

Mikel

I!

Patxo

Ibanetako ibar ilunean ikuspegi ikaragarria. Infernua irudi. Iparrekoak, ibilera izuaz, inpotentziaz inora itsuan ihesi. Irabazleek izugarrizko irrintziak iraultza iragartzeko.

Mikel

J!

Patxo

Jakaz jantzitako jeneralak, jipoia jasota joan joakuz jaisten, jarraian jaikitako jende jatorrak jazarpena jarraitzen.

Mikel

K!

Patxo

Karlomagnoen kapitainak kikilduta, kontrarioen kaskatekoak kaskoen kontra kolpatzean. Karlomagno koitadua kabreatuta, karrasika, kornetari kantua konkretatuz: “Krisatauok, kanpora, korrika, kakapirrika!!”

Mikel

L!

Patxo

Lintxamensuaz libratzeko lainopean lasterka Lapurdiko lautadarantz, lantzean latinezko lantu lazgarriak libratuz, lekuko laborarientzat landak libre lagata. Lurpeko leizeetan lotuko lirateke, lasasi-lasai, larritasunaren larritasunaz.



Mikel

M!

Patxo

Menditarrak, mahomatar musulman mairuekin, mendia menderatzean, mutu: Militar maltzur miserableak mugatik mudatuta, materiagabetuta! Misterioa! Mirari metafisikoa! Mendebaldeko mandatari mitikoa menderatuta!

Mikel

N!

Patxo

Nonbait nazio nagusiko nobleak nomadak Nafarroan. Nekearen nekeaz noraezean, nonahi, nahasmenduan. Negargarri.

Mikel

Bale!! Nahikoa da. Gehiegi luzatzen ari gara. Zeinen abila zeren ikusi dugu, baina aurrera egin behar dugu, bestela oso...

Patxo

O!

Mikel

Jode!

Patxo

Ohartu ondo, Orreagan organizaturiko oldarketa. Oiloak oilartu ondoren, odolezko ordaina. Oroitu: okupatzekotan, ohea okupatu, osaba.

Mikel

Bale, Patxo, ez izan plasta...

Patxo

P! Parisen, palazioko poetak pasadizuaren poema prestatu, patriaren partaidetza pirrikoa ponpaz puztuz; partianoen protagonismoa pobretuz. Propaganda politiko penagarria.

S! Simetrikoki sorlekukook sarraskiaren sentimendu subjetoegia, seguraski, sarkina satirizatuz, subiranotasunaren sustraiaren sinboloa sortuz. Susmo sabiniano samarra.

T! Tira. Transpiriniarrentzat, turkoek tramaturiko traizioa, trauma trajikoa, ta tragu traketsa. Tokiko tribuarentzat, trukean, taldelanaren tradizioaren tontorra.

Mikel

Utzi behingoz!

Patxo

U! Urtez urte urak urtuko urraduraren ubeldura. Udaberriari uda urratsez urrats uztartuko. Urrikalmenduaren unea. Ultramontanismoak uzteko unea.

Eta Z! Zenbat zauri, zenbat zartada zerupean! Zera, zetarainoko zerrenda zinez zaila zen. Zauriak zabaltzekotan, zakarrontzira zuzen zuzenean. Zuzentzekotan, zoragarria zitekeen. Zalantzak zalantza, zirikatzaile zitala zikiratuta. Zuek zarete zorroen zaindaria. Zergatik zaudete ziplo zozo? Zuen zorion zaparradaren zain, zuen zerbitzariak.

Desagertzen dira biak. Mikel marmarka.

ILUNA

GERNIKAKO ARBOLA

Patxo

Zer Mikel? Arazoren bat?

Mikel

Ez, bat ere ez. Oso ondo aritu zara. Akaso labur xamarra izan da, bestela primeran.

Patxo

E, Mikel, ez joan hortik, e... Hartu humorez.

Mikel

Ados! Humorez hartuko dut.

Patxo

Hori oso inteligentea da zure aldetik! Goazen aurrera, euskararen historiarekin. Ezinezkoa da Euskal Erdi Aroaz hitz egitea Gernikako Arbola aipatu gabe.

Mikel

(Kantatuz, txantxetan) "Gernikako Arbola"

Patxo

Gernikako arbola...

Mikel

(Kantatuz, adarra jotzeko asmoz) "Gernikako Arbola"

Patxo

Gure instituziorik begetarianoena da.

Mikel

Zein?

Patxo

Gernikako ar...

Mikel

(Kantatuz) "Gernikako Arbola..."

Patxo

Beno, nahikoa da!!

Mikel

Zer?

Patxo

Utziozu ba hori egiteari!

Mikel

Zer?

Patxo

Jode, Gernikako arbola esaten dudan bakoi...

Mikel

(Kantatuz) "Gernikako Arbola..."

Patxo

Jode...!!

Mikel

Ah, hori! Molestatzen zaitu?

Patxo

Bai!!

Mikel

Ba hartu humorez.

Patxo

Eta zer moduz ez baduzu berriro kantatzen??

Mikel

Ados. Tolerantea naiz. Ez dut berriro kantatuko.

Patxo

(Publikoari) Gernikako arbolaren azpian...

Mikelek melodia tarareatzen du hortz artean.

Patxo

...erabaki garrantzitsuak hartzen ziren. Baina jende gutxik daki, toki berean euskarak beste aurrerapauso ikaragarria eman zuela.

Patxo Bizkaiko Jaun-az jantzi da, Lopez de Haro bat. Patxo taulada moduko batera igoko da. Mikel publikoaren artean dago. Ez du pankarta ikusi oraindik.

Mikel

(Publikoari) Nire senarro da. Bizkaiko Jauno. Don Diego López de Haro. Guapo ezta? (Patxori) Diego!! Diego!!

Patxo

Nor...? (Abotsa nondik datorren ikusten duenean) Ah, maitea, etorri zara?

Mikel

Lepoa!

Patxo

Zer?

Mikel

Lepoa, laztano, zuzendu ezazu, oker daramazu eta.

Patxo

(Lotsatuta konpontzen du) Ah... Eskerrik asko, maitea.

Mikel

(Publikoari) Jatorro da, oso jatorro, baina arroparako desastre hutso da. Eta mantxak...! Ez dago banketerik, lanparoi batekin bukatzen ez duenik...!

Patxok hasperen egiten du.

Mikel

Bai, laztano?

Patxo

Gernikako Arbolaren...

Mikelek kanta tarareatzen du.

Patxo

...azpian gaude, maitea, eta ez etxeko sutondoan.

Mikel

Eta?

Patxo

(Paperak erakutsiz) Utziko didazu?

Mikel

Oh, bai, laztano, barkatu.

Patxo

Ez da ezer, Maitea. (Papera irakurriz) "Bizkaitarrok!! Gaztelako erregeak zergak igo nahi ditu, eta gu preokupatuto gaude. Preokupatuto eta kezkatuto. Une honetan denok egon behar gara batuto...

Mikelek eskua altxatuko du.

Mikel

Barkatu laztano.

Patxo

Bai, maitea?

Mikel

Herri honetan emakumeak ere badaude!

Patxo

Badakit, Maitea. Hain zuzen ere ni zurekin ezkonduko nago. Eta hori ezin daiteke ahaztu.

Mikel

Eta orduan zergatik baztertzen gaituzu?

Patxo

Noiz baztertu zaitut nik, maitea?



Mikel

Orain. Gizonezkoei bakarrik hitz egiten diezu. Bizkaitarrok, preokupatuto, kezkatuto... Emakumeak ere preokupatuta eta kezkatuta gaude!

Patxo

Badakit, maitea. Eta orain barkaidazu. (Berriro irakurtzera doa) "Ez bagaude denok batuto..."

Mikelek berriro eskua altxatauko du.

Mikel

Barkatu, laztano.

Patxo

Bai maitea?

Mikel

Mesede bat eskatu nahi dizut: sartu emakumeak ere zure diskurtsoan.

Patxo

Baina maitea, nola nahi duzu ba esatea: “Bizkaitarrok eta Bizkaitarrak, preokupatuto eta preokupatuta gaude, kezkatuto eta kezkatuta. Denok eta denak batuto eta batuta...”?

Mikel

Ez, jakina. Hori gogaikarria da.

Patxo

Ba horrexegatik, maitea. Maskulinoa erabiltzen dugunean, modu generikoan, gizon eta emakumeei buruz hitz egiten ari gara, inor ere baztertu gabe. Ulertzen? Konbentzio linguistiko bat besterik ez da. Eta orain, zure baimenarekin, jarraituko dut, oso atzeratuto nabil. (Papera irakurriz) “Bizkaitarrok...”

Mikel

Barkatu, laztano.

Patxo

Bai, maitea?

Mikel

Eta zergatik ez duzu alderantziz egiten?

Patxo

Barkatu?

Mikel

Zergatik ez duzu dena femeninoan esaten?

Patxo

Txantxetan ari zara, ezta? Eta gizonezkook zer?

Mikel

Femeninoa erabiliz, modu generikoan gizon eta emakumeei buruz hitz egingo genuke, inor baztertu gabe, ez? Konbentzio linguistiko bat.

Patxo

Maitea... Publikoa gure eztabaidaz nekatuto dago.

Mikel

Eta nekatuta!

Patxo

Eta nekatuta, bai. Hara... Gauean hitz egingo duzu horretaz, ados?

Mikel

Ez, laztano. Orain.

Patxo

Baina...

Mikel

Orain!

Patxo

Ondo da... Kasu egingo dizut, ikusiko duzu zeinen gauza erridikuloa planteiatzen ari zaren. (Papera irakurriz) "*Bizkaitarrak!!...*"

Barreak. Patxok femeninoan esaten dituen hitzak enfatizatzen ditu, barrea eragiteko asmoz.

Patxo

...Gaztelako erregeak zergak igo nahi ditu, eta gu *preokupatuta* gaude...

Barre gehiago.

Patxo

Preokupatuta eta kezkatuta...!

Barre algara.

Patxo

Une honetan denok egon behar gara *batuta...* (Musika zuzendariaren keinua egiten du, batuta erabiliz bezala) Batuta!!

Barre algara zaratatsua.

Patxo

Denak batuta aldarrika dezagun, Gora Herria Astakaltuta!!!

Barreak.

Barre algaren gainean Patxo badoa. Mikel, bere tokitik.

Mikel

Bizkaiko Jaunak ezin zuen imajinatu ere egin handik gutxira emaztearen amets hura egia bihurtuko zenik. Orduetik, euskara munduko hizkuntzarik feministena da... Ah, eta Bizkaiko Jaunak, gau hartan, sofan egin zuen lo.

ILUNA

OINAZ ETA GANBOA

Patxo

Erdi aroa bukatzen ari zen, eta berarekin batera, euskararen bilakaera definitiboa. Detaile batzuk baino ez ziren falta. Beste batzuen artean, Ergatiboaren “K” famatu hori. K horren falta izan zen, hain zuzen, gerra banderizoen arrazoia. Oinatin gaude. Oinaztarren gazteluan. Oinazen urtebetetzea da, eta bere adiskide Ganboa konbidatu du.

Banketearen mahaian Mikel Ganboa eta Patxo Oinaz adiskideak, kopa bana eskuan. Urtebetetze kanta kantatzen ari dira. Offean gizezkoen koro bat entzuten da.

Gerlari odoltsua da ta
Gerlari odoltsua da ta
Gerlari odoltsua da taaaaaaa!!
Beti izanen da.
Beti izanen da
Beti izanen da.

Patxo

Eskerrik asko, lagunak. Oso jatorrak zarete. Gustura bazkaldu duzu, ene lagun Ganboa?

Mikel

Bai, Oinaz, alajaina. Bankete ederra izan da. Gora Oinaz gure adiskidea!!

Patxo

Eskerrik asko. Lastima zure anaia Juan hain goiz joan behar izana, ez zegoen gustura?

Mikel

Bai, Oinaz. Juan primeran egon da.

Patxo

Juan jan du?

Mikel

Bai. Juan jana jan du, Jauna!

Patxo

(Barrez) Juan jana jan du, ala jana jan du Juan?

Mikel

(Barrez) Ez, Juan jana jan du...

Patxo

Ala agian nire arreba Juanaz ari zara... (Beste gonbidatuei) Nire arreba Juana goxoa da, baina ez dut uste bere anaia Juan nire arreba Juana jan duenik!

Barre egiten dute biak.

Patxo

(Bat-batean serio, barrea etenik, Mikeli) Ala bai?

Mikel

(Apur bat kikilduta) Ez, Juan ez du Juana jan. Juan jana jan du.

Patxo

Eskerrak. Eta ez kezkatu, Ganboa, txantxetan ari nintzen!!

Biok barrez.



Patxo

(Berriro serio) Dena den, ez dut Juana ikusten. (Mikeli) Non dago Juana, jauna?

Mikel

Juana jana janda joan da.

Patxo

Juana janda joan da, ala Juan da Juana jan duena?

Mikel

Ez, Juan jana janda joan da, Juana jan gabe utzita. Eta Juan joanda, Juana jana jan du, Juana, Jauna.

Patxo

(Mehatxuskor) Ganboa sartu duzu, Ganboa. Non dago Juana, Jauna????

Mikel

Ni ez dakit, Jauna.

Patxo

Juan joanda jan du Juana, ala Juana janda joan da Juan?

Mikel

Ni ez dakit, Juana, zera Juan, zera Joana, zera Jauna.

Patxo

Urduri zaude, Ganboa!

Mikel

Ez.

Patxo

Orduan esaidazu: nor jan du nor? Juana Juan ala Juan Juana. Ala Juan eta Juana janda joan dira??

Mikel

(Dardarka) Ez Joana, ez Juana, Ez Jauna... Jaun Juan joan da janda, eta gero Juana janda joan da, jauna...

Mikeli kopa jausten zaio.

Mikel

Jo, jausi jat, alajaina, jauna.

Patxo

Eta zergatik joan da Juan, juakin badaiteke? Ondoezik?

Mikel

Bai, Jauna.

Patxo

Eta zer ajea zeukan Juan, Jauna?

Mikel

Juan... Juaneteak... jauna.

Patxo

(Barre mehatsukorra) Jua... Jua... Jua...

Mikel

Ui, ze berandu!!! Joan behar joat!

Patxo

Joan, joan Juanengana.

Mikel badoa. Bidean, geziz josiko dute hil arte.

Mikel

Oh!!

“Altzak ez du biotzik
Ez gaztanberak hezurrik
En nian uste aitunen semek
Erraiten zuenik gezurrik”.

ILUNA

BERGARAKO BESARKADA

Patxo

Tira, Mikelen antzezpena ikusita zaila egingo zaizue sinestea, baina Ganboa benetan hil zen.

Mikel

Nire lana kritikatzan ari zara publikoaren aurrean?

Patxo

Inola ere ez! (Publikoari) Mikel aktore komiko paregabea da. Hain da komikoa ze modu tragiko batez hiltzen denean ere, barregarri geratzen da.

Mikel erantzutera doa.

Patxo

Bestalde, pertsona adiskidetsua eta tolerantia denez, kritikak oso humore onez hartzen ditu. Ezta, Mikel?

Mikelek bere erantzuna irensten du.

Patxo

Eta orain saiatu zaitez moduz hiltzen.

Mikel, minduta, berriro hiltzen da.

Patxo

“¡¡Ganboa Oinaz hil du!!” Oihua bailara osoan sakabanatu zen. Ergatiborik ez zegoenez, inork ez zuen ulertu nork hil zuen nor, Oinazek Ganboa ala Ganboak Oinaz. Badaezpada guztiak hasi ziren mendeku bila. Eta horrela hasi ziren banderizoen gerrak.

Mikel

Euskaldunak mendeak eta mendeak egon ziren borroka bizian, ergatiborik ez zegoelako. XIX. mendean, Espartinek eta Amоротok hauzia konpondu zuten, Bergarako Besarkadan. Gaztelaniaz, “La Paz del Nor Nori Nork”.

Patxo eta Mikel (Espanterro eta Maroto) aurrez aurre jartzen dira. Haserre. Patxok domina bat darama uniformeko bandan. Mikelek ere domina jartzen du, berdin egoteko. Patxok orduan beste domina bat jartzen du. Mikelek orduan bi jartzen ditu. Orduan Patxok bandari buelta eman eta dominaz josita agertzen da.

Musika hasi eta “Balkoira” igotzen dira.

Mikel

Herritarrok. Gaurko egunez, eta Erregina Isabel Bigarrenaren mandatuz, erabaki dugu...



Patxo

...hemendik aurrera, eta herritarren artean bakea ezartzeko, aditz indikatiboen sujetoak, aurrerantzean Nork, “-k” atzizkia eramango duela, konplemento zuzenetik bereizteko. Konplemento zuzenak, berriz, aurrerantzean Nor, ez du atzizkirik izango.

Mikel

Halaber, konplemento indirektoari, aurrerantzean *nori* atzizkia jarriko zaio.

Patxo

Nori erabiltzean “ri” atzizkia jartzen ez duenari 20 zigorkada emango zaizkio.

Mikel

Nork erabiltzean “k” atzizkia jartzen ez duenaK, hilabeteko kartzela zigorra jasoko du.

Patxo

Halaber, Nor erabiltzean “-k” edo “-ri” atzizkia jartzen duena, enplumatua izango da plaza publikoan.

Mikel

Eta orain, bakea sinatzeko, Esparterok Marotori besarkada emango dio.

Patxo

Halaber, Marotok Esparterori ere besarkada emango dio. Beraz,

Biak

Besarkada elkarri emango diogu

Besarkada. Besarkadan, Mikelek Patxori uniformeko banda osoa, domina eta guzti, lapurtuko dio, Patxo konturatu gabe.

Mikel

Herritarrok, orain arte, borrokan egon gara, batzuk besteen kontra, zergatik jakin gabe.

Patxo

Nor-nori-nork legeari esker, borrokan jarraituko dugu, baina jakingo dugu zergatik!!!

Segidan Nor Nori Nork-en ereserkia entzuten da. “Eusko Gudari”-aren melodiaz. Esparterok eta Marotok, txanoak kenduta, ereserkia kantatzen dute.

Patxo eta Mikel

Nor nori nork behar dugu
Elkar ulertzeeeeko
“-k” ipini sujetoan
Ondo bereizteko.
Komplemento zuzenak
Ez dauka atzizkiriiriik
(irrintzi bat entzuten da)
Nori adierazteko
jarri bukaeran “-ari”

ILUNA

GERNIKA

Mikel

Lehenengo gerra karlistaren ostean, bigarrena eta hirugarrena etorri ziren. Horrekin aski ez eta XX. Mendearen hasieran Gerra Zibila hasi zen.

Patxo

Euskarari dagokionez, garai hartan, Sabino Aranaren eraginez, fenomeno berria sortu zen, garbizaletasuna. Erderarekin antza zeukaten hitz guztiak gaizki ikusiak zeuden. "Erderakadak" omen ziren. Orduan asmatu ziren gaur egun normaltzat hartzen ditugun hitzak: Lehendakari, Ikurrina, Antzerkia... Beste batzuk arrakasta gutxiago izan zuten: berebila...

Mikel

Noren bila?

Patxo

...Autoa; Urrutizkina: telefonoa; Bultzia: trena... Gerra zibilean gaude. 37. urtean. Gernika ondoko kuartel batean. Gudari bat guardia egiten.

Mikel guardia egiten ari da. Patxo hurbiltzen zaio.

Patxo

Guardia egiten?

Mikel

Erdarakada!

Patxo

Barkatu, zaintza egiten?

Mikel

Bai.

Patxo

Ta?

Mikel

Nobedaderik ez...

Patxo

Erdarakada!

Mikel

Barkatu, berririk ez.

Patxo

Laguntzea nahi?

Mikel

Milesker. Lau begik bik baino hobeto ikusten dute. Gernika ondo zainduta egongo da gurekin.

Patxo

Belar-erregarri-paperean-tolestu bat?

Mikel

Zer?

Patxok zigarroa eskaintzen dio.

Mikel

Ah! Ziga... Belar-erregarri-paperean tolestu bat! (Hartzen dio) Milesker, gogoia daukat, akeita hartu dut orain dela gutxi!

Patxo

Akeita?

Mikel

Kolonbiar hazi errea eta birrindua, uretan egosia.

Patxo

Ah, kafea! Zera, akeita, bai! Nik, hartzekotan, kitzigarrigabea hartzen dut.

Mikel

¿(...)?



Patxo

Deskafeinatua. Bestela urduri jartzen naiz. Tauro naiz.

Mikel

Erdarakada!

Patxo

Egia, barkatu. Zezenaga.

Mikel

Ni arraineta.

Patxo

Sendia duzu?

Mikel

Bai. Bi seme. Bata dardaindariztia.

Patxo

Hola!

Mikel

Elektrizista.

Patxo

Ah... Gure etxean tximistargiztia esaten diogu.

Mikel

Eta bestea osakina da. Otorrinolaringologo.

Patxo

Sudurreztarribelarriztia. Non ikasi du?

Mikel

Beltzerrian. (...) Maketerrian. (...) Espainian!

Patxo

Ah! Gaixoa!!

Mikel

Gaixoa, bai.

Isilunea.

Patxo

Gotzon bat pasatu da.

Mikel

Igaro.

Patxo

Barkatu: Igaro bat pasatu da. Gure etxean aingeruari *gotzon* esaten diogu.

Alarma bat entzuten da.

Mikel

Zuk nola esaten diozu horri?

Patxo

Gure etxean, "babes-deiadarra".

Mikel

Polita. Guk "Arrisku-hotsa".

Patxo

Polita ere.

Abioi zarata entzuten dute. Zerura begira geratzen dira.

Patxo

Begira... Abio... Zera... Helizearen bultzadaz baliatzen diren aireko ibilgailuak.

Mikel

Hegazkinak.

Patxo

Ah, jode, egia.

Bonba hotsak entzuten dira.

Patxo

Zer arraro. Zeruan hodeirik ez eta trumoiak entzuten dira.

Mikel

Ez dira trumoiak...

Patxo

Barkatu. Zeruburrundotsak.

Mikel

Ez.

Patxo

Hodeiburrunbak.

Mikel

Ez.

Patxo

Tximist-zaratak.

Mikel

Ez. Hegazkin jaurtigailuak!!

Patxo

Hegazki zer?

Mikel

Bonbak!!!

Patxo

Erdarakada!!

Bonba batek lehertzen ditu.

ILUNA

BURDINEZKO GERRIKOA

Patxo

Frankoren armadak, Alemaniar hegazkinen laguntzarekin, laster hartu zuen mendean Euskal Herri osoa. Osoa? Ez! Bilbao inguruan defentsa sendoa ezarria zegoen, “Burdinezko Gerrikoa” izenaz ezaguna.

Mikel sartzen da, gudariz jantzita, militar kasko bat eta mauser batekin, oraindik neskaren peluka daramala.

Patxo

Mikel, zertan ari zara?

Mikel

Gudariarena.

Patxo

Peluka batekin??

Mikel

Gudari emakumezkoa naiz. Nekatuta nago eszena hau beti berdin egiteaz. Bide berriak esperimentatu nahi ditut.

Patxo

Baina gerra zibilean ez zen egon emakume gudaririk!

Mikel

Badakizu zer gertatzen zaizun zuri?? Inbidia didazula.

Patxo

Inbidia? Nik?? Zergatik?

Mikel

Aktore kamaleonikoa naizelako. Zu, berriz, Patxo zara denbora guztian.

Patxo

Badakizu zer gertatzen zaizun zuri, “aktore kamaleoniko horri”?? Duintasunik ez duzula!

Mikel

Duintasuna???

Patxo

Bai! Duintasun minimo bat bazenu ez zinateke irtengo eskenatokira piura horrekin!!! Ni enkasilatuta egongo naiz, baina gutxienez saiatzen naiz erridilukoa ez egiten.

Mikel

Ba orduan igo brageta, koño!

Patxok brageta jaitsita duela konturatzen da.

Mikel

“Aktore duin hori”!!

Patxok brageta igotzen du, lotsaturik.

Patxo

(Publikoari) Burdinezko Gerrikoa menderaezina omen zen. Zergatik erori zen, orduan? Hara: euskararengatik. Artxandako postua defendatzen ari zen gudari horrek gaztelaniaz hitz egin izan balu...

Patxok militar kaskoa jantzi eta irratiz hitz egiten du.

Patxo

Atención, Alfa 1 llamando a Mochuelo 2...

Mikel

Mochuela.

Patxo

(Hasperen) Alfa uno llamando a Mochuela 2, Alfa 1 llamando a Mochuela 2. Está a punto de pegarte un tiro...

Mikel alerta, mauser-a eskuan duela.

Patxo

...un francotirador franquista que se encuentra enfrente de ti, a las dos...

Mikelel lokalizatu egiten du.

Mikel

Localizado!!

Patxo

...debajo de una encina y oculto bajo una manta de camuflaje...

Mikelek tiro egiten dio.

Patxo

...provisto de un...

Mikel

Tranquilo, camarada, asunto resuelto.

Patxo

...un fusil mauser, modelo 1893, de 7mm de calibre y provisto de mirilla telescópica. Buen trabajo, camarada. Eres un lince... Una lince.” (Publikoari) Baina gudari hori euskalduna zen, eta badakizue ze gertatzen den:

inportanteena beti esaldiaren bukaeran esaten dugu, euskal sintaxia! Hara zer gertatu zen.

Patxok irratia hartzen du.

Patxo

Adi, hemen Alfa 1 Mozolo... Mozolo Emea 2ri deika, Alfa 1 Mozolo Emea 2ri deika. Entzun: Artea baten azpian eta kamuflaietarako manta batez estalirik...

Mikel lasai, eserita oraindik.

Mikel

Bai...

Patxo

...7mm kalibredun eta mirila teleskopikoaz hornituriko Mauser bat duela...

Mikel

Aha...

Patxo

Zure aurrean, ordu bietara...

Mikel

Bai...

Patxo

Soldadu frankotiradore bat duzu...

Mikel izututa altxatzen da.

Mikel

Ostia, ¿non?

Mikel bila hasten da, baina fusila hartzen duenerako, tiroa jaso eta lurrera doa.

Patxo

...zuri tiroa egiteko prest."

Mikel

(Dramatismo haundiz)

Eskribitzen badaustazu
Badakizu non nagoan
Infernu labanagoan
Deabruaren ondoan

Patxo

Ole ole eta ole!!

Mikel

Bale, agian pasatu egin naiz, baina katxondeorik ez, mesedez.

Patxo

Ze katxondeo! Txundituta utzi nauzu.

Mikel

Benetan?

Patxo

Ileak eskarpaik bezela ditut! Oker nengoen, Mikel. Pelukarena oso arriskutsua zen, baina kriston duintasuna eman dio heriotzari. Beste dimentsio bat.

Mikel

Beno, ni dena ematen saiatu naiz. Eta lehen ez dizut esan, baina Orreagakoa primeran egin duzu.

Patxo

Ba... Goazen aurrera. Badaukazu beste peluka bat?

Mikel

Baten bat bai, baina ez dut enkasilatu nahi.

Patxo

Ez! Niretzako!

Mikel

Zuretzako?

Patxo

Bai, arrazoi zenuen. Arristatu beharra dago. Erridikuoa egiteko beldurrak uxatu!

Mikel

Oso ondo, Patxo. Tori. Eta zorte on!

Patxok peluka jazten du.

FRANKISMOAN

Patxo

Gerraren ostean Frankismoa etorri zen. Garai oso gogorrak, dudarik gabe. Baina gauzak zer diren, bolada luze hartan, etsaia kanpoan zegoenez, ez genuen gure artean borrokan egin.

Mikel

Zelan borrokan egin, ez bagenion ondo ulertzen elkarri. Batua asmatu gabe zegoen oraindik, eta bizkaitarrak ez zion lapurtarrari ulertzen, ez zuberotarrak nafarrari ere. 70. hamarkadan gaude, Aberri Egunean.

Patxok emakume-rola konposatu nahi du, baina ez zaio irteten.

Mikel

Patxo, zure hauzokoa, zure azpian bizi dena.

Patxo

Mariasun!!

Patxok erremango haundiko emakume baten rola jokutzen du.

Patxo

Firmiak estatutoaren alde!

Mikel, neska jantzita hurbiltzen zaio. Mendigoizale bat darama.

Patxo

Aupa gizona! Hartu horrixa eta leitu. Ados basaoz, firmeu.

Orria ematen dio.

Patxo

Zelan ikutezu?

Mikel

(Iparraldeko doinuaz) Ze lan? Orain ez nihaurk lanean, orain opoggetan nihaurk, bakantzatan.

Patxo

Bakantza... Guk behia esaten dautsagu, behia!

Mikel

Bai, ni ere behira nihaurk, ikuspegi zoragarria, xarmagarria!

Patxo

Saman garria? Garria ez dago saman, gizona. Garria garrian dago eta sama saman.

Mikel

Xaman? Xaman zira? Hetxizeroa? Hartzen düzüa peyote?

Patxo

Pello? Pello nire gizona da, arrantzalia. Orain tenporadan dao. Ni Juana naz, han andria. Beno, zer, firmaukozu estatutuaren alde?

Mikel

Oh! Estatutua! Begira, ni Iparraldekoa niz eta estatutoan bazter utzi gaituzue, beraz, estatuto hau errefuxatu, arbuiatu eta deitoratzen dut.

Patxo

Esaizu baietz gizona, ze ondo eiten dozun berbie!! Gora estatutoa! Orduan kontatu ahal dogu zugaz?

Mikel

Ni gaz? Ze gaz? (...) Oh... Itxoin. (Txiskero bat atera eta pizten du)

Patxo

Ez, ez dot fumetan. Itxi dotsat. Hau hartuten nago monua kenduteko.

Patxok juanolak ateratzen ditu.

Mikel

Oh... Mesedez, bat emanen?

Patxo

Ez, "emanem" ez, Juanola.

Mikel

Ah... hola. Juan, hola.

Patxo

Ez, Juana. Hara bestia, Juan ez dit ba deitu!!

Mikel

Baina zergatila ez deraustazu bat ematen? Franko düzü.

Patxo

Franko hilzorian dao. Laster kaput, gizona!

Mikel

Oh! Gizona kapüt? Alargüntüa zira?

Patxo

Ze tia? Nire tia ez da etorri.

Mikel

Ez da jin?

Patxo

Ez Yin eta ez Yan.

Mikel

Yan?

Patxo

Ondiño ez. Baina ez da ideia txarra. Gosiak amorratuta nao.

Mikel

Amoratuta zira? Ze erromantikua. Bizkaitarra izaiteko, arras gosua zira.

Patxo

Gosua? Guk gosia esaten dogu. Tripazorria!

Mikel

Zoria bai, zoriona emaiten du amoratuta egoitea.

Patxo

Zeuren ere gosetute, eh? Goazen jatera.

Mikel

Zer eggan düzü?

Patxo

Edan ere, mozkortu arte, gurebozu, ardoa eta patxaran.

Mikel

Bai, ni patxadan nago, opoggetan.



Patxo

Ederto entendiduten gara gu biok! Hor taberna bat dao legatsa primeran preparentan dauena.

Mikel

Oh, ez düzüt konpreni, malerusa ni.

Patxo

Maleruza, hori da, legatsa, saltsa berdean. Ea, goazen.

Mikel besotik hartu eta eraman egiten du.

Mikel

Oh, baina... Zu nirekila?

Patxo

(Irribarrez) Zure "kila"... Ai pikaron! (Badoaz) Zelakoak direzen prantses hauek!! Ai hogei urte gitxiago baneu!!

Patxok ipurdiko bat ematen dio. Mikel moskeatu egiten da.

Mikel

Ontsa da, zurekila joanen niz, baina argi gera dakizula ez dudala fitsik izenpeturen nehon eta nehoiz!

Patxo

Ze ondo eitten dozun berbie, amante! Baina egixa aitortuko dautsut, ez dotsut piperrik entendidu. Zer ez neuke nik emongo zuri entenditzeagatik!!

*Argi zenital bat pizten da. Musika zerutiarra. Offeko abotsa entzuten da.
Good-en abotsa da.*

Off

Juana Elantxobekoa, nire artaldeko ardi errukaria!! Zure arregura entzun dut, eta zurenahia betetzera noa. Elkarri ulertu nahi diozue? Hala bedi! Euskera Batuaz hitz egingo duzue hemendik aurrera.

Argia joaten da.

Juana

O!! Uler diezadakezu?

Mikel

Uler diezazuket, bai!

Juana

Oh!! Elkarri uler diezaiokegu! Gora batua!

Mikel

Gora bai! Akabo betiko ezin ulertuak! Etorkizun zoragarria datorkio Euskal Herriari!

Juana

Orduan goazen harira. Sina zeniezadake estatutoaren aldeko orritxoa? Zinez eskertuko nizuke!!

Mikel

Zer? Estatutoa berriro??? Mesedez, ez zakizkit horrekin berriro etorri!!

Juana

Lasai, amante, oihurik ez. Ni borondate onez hurbildu natzaizu.

Mikel

Ea uler dizadakezun: estatuto honi saldukeria deritsot.

Juana

Hau lehenengo pausua besterik ez da. Hiru probintziak estatutoa lor bageneza, zuek egunen batean ere sar zintezketen.

Mikel

Egunen batean? Noiz? Kardanberak loratzen direnean?

Juana

Aizu, amante, potroak ikutzera etorri bazatzaizkigu, hobe zenukeen zure etxean geratu izan bazina!!

Mikel

Ba ideia ona, nire etxera noa. Hor konpon! (Badoa) Posibilista!!

Patxo

Erradikala!!

Mikel

Erreakzionarioa!

Patxo

Iraultzailea!!

Mikel

Espainolista!!

Patxo

Gabatxo!!

Ileordeak kentzen dituzte.

Patxo

Nola ibili garen beti, e? Beti muturka, betiliskarrean...

Mikel

Ondo konpontzeko modu bakarra elkarri ez ulertzea izan da.

Patxo

Galdetuko duzue, hau zer da, patua, madarikazio bat?

Mikel

Hain zuzen ere, azkeneko eszenan horren zergatia azalduko dugu...

Patxo

Goazen egitera.

Mikel

Ah, Patxo, emakumearena bikain egin duzu. Ea, ze paper egin nahi duzu orain?

Patxo

Caracruzean egingo dugu?

Mikelek txanpon bat ateratzen du.

Mikel

Kara edo kruz?

Patxo

Kara.

Txanpona botatzen du.

Mikel

Zuk Ongia eta nik Gaizkia.

Biak pozten dira.

Patxo

Jaun andreak, segidan azkeneko eszena, non azaltzen dugun nondik datorren euskaldunen liskarrerako joera hau. Baina horretarako, berriz ere denboran atzera egin behar dugu, mundua sortzen ari zen egunetara. Garai mitologikoetara.

GAIZKI ETA GOOD

Off

Hasiera batean Ongia eta Gaizkia ziren. Indar kontrajarriak, Yin eta Yan. Gaizkia iluna zen, erretxina, eta hizkuntza arraro batez egiten zuen.

Mikel agertzen da, laneko arroparekin. Mapaz beteta doa.

Mikel

Eulixa najak eta drogak nahi ditut zeruan!

Off

Ongia berriz, baikorra, alaia, ona eta anglosajoa zen.

Patxo (off)

Love me tender, love me true...

Off

Ongia munduaren sortzailea izan zen. Hobeto esanda, berak izango zuen mundua egitearen ospea, baina egin egin, Gaizki egiten ari zen dena. Ez da harritzekoa, beraz, erreta egotea. Sei egunez lanean jotako aritu ondoren, obra entregatzeko ordua iritsi da. Minutu bat falta da Big Bang-erako.

Patxo agertzen da Ongiz jantzita. Txanpain botila eta kopa bat dakar..

Patxo

Gaizki, what are you doing? The Big bang is coming!

Mikel

Ja?? Baina oraindik ez dut bukatu!!

Patxo

How are the animals?

Mikel

Jaguar? Ez, jaguarra ez dut egin. Oraintxe elefantea bukatu dut.

Patxo

Elefant?

Mikel

Elegante, bai. Handi handia.

Patxo

Chicken?

Mikel

Ezetz! Kriston handia!!

Patxo

Tiger?

Mikel

Ta iger ere bai, oso ondo daki.

Patxo

Eagle?

Mikel

Igela polita. Txikia, eta kroa-kroa esaten daki.

Patxo

Iguana?

Mikel

Ni wuana? Ez. Hi wuana. El puto amo.

Patxo

And the people. The human body is OK?

Mikel

Gizakia? Ia-ia. Hankak falta zaizkit. Zenbat jarriko diegu? Nik lau hankarekin egitea pentsatu dut.

Patxo

That is the question. To be or not to be.

Mikel

Bi? Ok, zu zara jefea, gero ez niri esan...

Patxo

The countries and the cities?

Mikel

Ondo. Oraintxe bertan bukatu dut India. Triangelu baten forma eman diot. Zergatik? Potroetan jarri zaidalako, eta a tomar por culo!

Patxo

India?

Mikel

Ein diagu, bai!

Patxo

Zelanda?

Mikel

Zelan da? Ba... haundia, indioz beteta. Eta janaria oso pikantea jaten dute.

Patxo

Chile?

Mikel

Bai, txile, edo tabasco, ez dakit.

Patxo

Holanda?

Mikel

Holan da bai, gustatzen bazaizu arre eta bestela, almorranak aguantau.

Patxo

Tokio?

Mikel

Tira, zikinkeria ez bazaizu inporta. Ibaiak oso zikinak dira.

Patxo

Dakar?

Mikel

Zikinkeria, zikinkeria dakar ibaiak. Baina utzi behingoz India pakean, ez?

Patxo

Damasko?



Mikel

Bai. Dama asko, gehienak bekokian puntu gorri bat jarri diet.

Patxo

Burundi?

Mikel

Ez, buru normala, ez haundi ez txiki.

Patxo

Berna?

Mikel

Berna bi. Baina ez dira ikusten, praka oso xelebreak jarri dizkiet, kaka eginda daudela dirudi.

Patxo

Bermudas?

Mikel

Antzekoak.

Patxo

Praga?

Mikel

Bai, braga bezalakoak baina luzeagok. Eta utzi bakean jada India behingoz, badaude beste tokiak, jode!

Patxo

London?

Mikel

Jode! Lo ondo egingo dute, nik zer dakit ba?? Ze plasta, Indiarekin! Dozenaka toki gehiago egin ditut.

Patxo

Jamaika.

Mikel

Hamaika baino gehiago. Gelditu ere ez naiz egin, eta bitartean, zu potrojoorean.

Patxo

Tailand?

Mikel

Horixe, ta ni lan da lan. Deskantsatu nahi dut, jode!!

Patxo

Quito?

Mikel

Horixe, kito behingoz!

Patxo

Gabon?

Mikel

Gabon? Lotara zoaz? Eta inaugurazioa??

Offean musika entzuten da, tronpeta zerutiarrak.

Patxo

The inauguration is coming! Harry up!! Clean everything.

Good igotzen da taulara. Obazio bat entzuten da. Gaizki ere igotzen da.

Patxo

Gaizki, what are you doing here?

Mikel

Nik egin dut mundua...

Patxo

Gaizki, please, go out.

Mikel

Baina nire eskuekin...

Patxo

"Me, for me, whith me, to me..." Always me and me!! Humility and modesty, Gaizki. This is my moment. And prepare the chanpan!!

Off-eko abots bat entzuten da.

Off

Females and Males, animals and people, may I present to the creator of the Universe!!

Offeko abotsak atzerako kontaketa egiten du, hamarretik zerora.

Gaizki badoa, guztiz erreta. Patxok hitz egite duen bitartean, Mikelek pozoia botatzen dio txanpainari.

Eztanda bat entzuten da. Patxok kopa edaten du.

Patxo

Ohhhh!!! Wonderfull!! Gaizki, come here! I feel you are not happy!

Mikel

Nola egongo naiz pozik, ba?? Dena kendu didazu eta!!

Patxo

I have a sorpres for you. Look: the world is OK, the animals are OK, but the people.

Mikel

Zer gertatzen zaio jendeari?

Patxo

They dont speak.

Mikel

Eta nola hitz egingo dute, ba, ez badute hizkuntzarik??

Patxo

That is the question! They need a languaje. Now... Which languaje?

Mikel

Ze hizkuntza? Berorrena, ezta? Jakina. Beti berori, berori eta berori. You are the King. Hi wana. El puto amo.

Patxo

Oker zaude, Gaizki. Zure hizkuntza izango da.

Mikel

Zer? Nola...? Baina, Good, nire hizkuntzan egiten ari zara

Patxo

Ikasi dut, bai. Zuregana hurbildu nahi dut. Nekatuta nago Gaizkia eta Ongiaren rollo horretaz. Denok gara berdinak!

Mikel

Orduan, munduak nire hizkuntzan egingo du? Oh, zelako ohorea niretzat. Eskerrik asko jauna, orain eta beti.

Patxo

Gizaki guztiek hizkuntza bakar bat hitz egingo dute, eta denak zorion eta bakean biziko dira!!

Good gaizki sentitzen hasten da.

Patxo

O!!

Mikel

Zer duzu?

Patxo

Ez dakit. Mina... Eta izerdi hotza...

Mikel

Ostia!!

Patxo

Zer... egin duzu, Gaizki?

Mikel

Nik ez...

Patxo

Baina zuk ez al dakizu hilezkorra naizela, gilipollas?? Gauean kriston kakapirria izango dut.

Mikel

Ez haserretu nirekin, garai berriak dira, dialogoaren garaia. Erruki jauna, bakea beti zurekin, barkatu gure zorrak eta hori guztia.

Patxo

Baita ostia bat ere! Madarikatua izan zaitez, zu eta zure leinukoak!! Ez da hizkuntza bakar bat egongo, milaka baizik. Eta denetan txikiena, zurea! Entzun euskararen X madarikazioak.

Musika hasten da.

EUSKARAREN X MADARIKAZIOAK

Patxo

1.

Zure hasierako bekatu honek sortuko du galzoria
Ez da batere samurra izango euskaldunen historia.

2.

Neolitikoan hitzik gaberik, biziko dira isilean
Keinuren bidez moldako dira ta hala ere osti txarrean.

3.

Edan ta Epa agertu eta haiekin sexu gogoa
Sexu gatazka sortuko data izango da "la hostoa".

4

Ekain ta ubelek hasiko dute hizkuntz arteko gatazka
Kri-kri kir-kir guau gau zaunk-zaunk jajaja edo kar-kar-kar

5.

Erromatarrak helduko dira bakean egon nahiean
Gaizki ulertuko dute eta gerran hasi bat-batean.

6.

Erdi aroan emakumeak matxismoaz nazkatuta
Haiek ere egon nahiko dute kezkatuta ta batuta

7.

Oinaz eta Ganboan garaian ergatiborik ez eta
Jana janda joan da Juan jauna, Juana jan gabe utzita.

8.

Nor nori nork legeari esker bakea behingoz ezarririk
Geroztik ere borrokan denak, baina jakinda zergatik.

9.

-Gerra zibila galduko dute, Esango dizut zergatik:
-Zeren euskaraz inportena doa guztiaren atzetik

10.

Franko garaian baturik gabe euskara a ze nahaspila!
Legatsa saltsan edo malerusa, zurekin edo zure kila.

Hamar madarikazioak, bakar batean laburbiltzen dira:

Elkarren kontra egongo zarete per sekula sekulorum
Euskararen patua beraz, horra: Lingua Nabajorum

Elkarren kontra hasiko dira borrokan. Handik gutxira, banandu, barre egin eta karakterizazioa kenduko dute.

Patxo

Tira... hau broma bat izan da. Topikoarekin jolastu dugu: euskalduna liskarzalea omen da, borrokazalea, eta abar, eta abar.

Mikel

Guk topiko hau apurtu nahi izan dugu. Egia da hemen gerrak eta konfliktoak egon direla beti. Eta non ez?

Patxo

Ikuskizun honetan erakutsi dizuegu nola konflikto horiei esker euskara sortu eta garatu den, bere heldutasunera heldu arte.

Mikel

Eta geu ere heldutasunera heldu gara, ze gaur egungo euskaldunak adiskidetsuak gara, ezta, Patxo?

Patxo

Bai. Eta hurrengoan, borrokan egiten dugunean, kontuz ibili, ia ito nauzu.

Mikel

Benetan? Gaur berriro ere?

Patxo

Ba bai!

Mikel

Baina adiskidetsua zarenez, ez zaude haserre nirekin.

Patxo

Ez. Baina buka dezagun. Jende honek jakin nahi du behingoz zein izango den euskararen etorkizuna.

Mikel

Kezkatuta zaudete, ez?? Zer gertatuko ote da? Euskara galduko da?

Patxo

Gure patua da? Maldizio bat da?

Mikel

Hekatonbea? Apokalipsia?

Biek kantatzen dute.

Biak

Etorkizunak ze ote dakarren esango dugu segidan
Ez dago paturik, ez maldiziorik, dena dago gure eskutan

Jaun andre onak, hauxe da dena, orain behar dugu amaitu
Ongik esanak gogoan hartu eta Gaizkik esanak oroitu.
...biok esanak oroitu
...eta umore ona zaindu.

Oharra:

LINGUA NABAJORUM helbide honetan ikusgai dago:

<https://vimeo.com/111893572>

